

Kaixo:

Automobilgintzan Ingeniaritza ikasten dugun hiru mutil gara, Aritz, Victor eta Iñigo eta 2021-22 ikasturteko Winter Semester-ean Kleveko Hochschule Rhine-Waal unibertsitatean egon ginen Erasmus ikasle moduan.

Unibertsitateko klaseak iraileko azken astean hasten diren arren gu aste bat lehenago joan ginen, unibertsitateak harrera jardunaldiak antolatzen baititu ikasle berriei ongi etorria emateko. Gure partetik oso gomendagarria irutzen zaigu ekintza hauetan parte hartzea lagun berriak ezagutzen joateko.

Unibertsitateari dagokionez gauza askorik ez daukagu esateko, klase guztiak online egin genituen eta. Ondorioz, ez dugu ez laborategirik edo praktikarik izan. Irakasgai gehienek oso teorikoak izan dira eta irakasle batzuek gogo gutxi erakutsi dute. Hori bai, azterketen erdiak presentzialak izan ziren klaseak online izan arren.

Ostatu hartzeari dagokionez gu Briener Straßeko Studierendenwerk Düsseldorf residentzian egon ginen. Esan beharra dago residentzia ez dagoela ekipaturik, altzariak bakarrik daude eta sukaldean ez dago ezer. Pisu bat alokatzearen aukera ere badago edo beste residentzi bat dago Rindern-en. Gure partetik residentzia aukera oso ona iruditzen zaigu guri lagun berriak egiteko balio izan digulako.

Garraioari dagokionez unibertsitateko kuota ordaintzearekin batera, 300€ inguru, Semester Ticket-a ematen dute. Honekin Renaniako eskualdeko garraio guztia dohainik da, abiadura handiko trenak izan ezik. Orokorrean garraio publikoa eroso eta mugitzeko aukerarik onena da eta tren mardoa izaten dira. Hala ere, trenek sarritan arazoak izaten dituzte, atzerapenak eta bertan behera uzteak nahi baino sarriago gertatuz.

Kleveri dagokionez gauza askorik ez duen herria da eta ambiente unibertsitarioa gutxi antzematen da. Familiarekin bizitzeko herri lasai bat da. Esan beharra dago nahiko konexio onak dituen herria dela, Herbehereak 45 minututara daude autobusean, Düsseldorfera ordu eta erdian iristen da eta Koloniarra 2 orduan.

Horrez gain, esan behar daukagu alemaniarrekin oso harreman gutxi izan dugula unibertsitatean oso gutxi ikusten direlako, ikasle gehienak kanpotarrak dira, bai Latinoamerikakoak, bai Hegoaldeko Asiakoak. Almanierari dagokionez oinarrizko hitzak ikasi ditugu justu-justu.

Azkenik, esan nahiko genuke nahiz eta seguruenik Kleve helmugarik onena ez izan guk oso esperientzia ona izan dugula bertan, lagun mardoa egin dugu eta bidaiatzeko aprobetxatu dugu.

---

Buenas,

Somos tres chicos que estudiamos Ingeniería en automoción, Aritz, Victor e Iñigo y en el Winter Semester del curso 2021-22 estuvimos en la universidad Hochschule Rhine-Waal de Kleve como estudiantes de Erasmus.

Aunque las clases universitarias comienzan la última semana de septiembre nosotros fuimos una semana antes, ya que la universidad organiza jornadas de acogida para dar la bienvenida a los nuevos alumnos. Por nuestra parte, nos parece muy recomendable participar en estas actividades para ir conociendo a nuevos amigos.

En cuanto a la universidad no tenemos muchas cosas que decir, porque hicimos todas las clases online. En consecuencia, no hemos tenido ni laboratorios ni prácticas. La mayoría de las asignaturas han sido muy teóricas y algunos profesores han mostrado poco entusiasmo. Eso sí, la mitad de los exámenes fueron presenciales a pesar de ser que las clases fuesen online.

En cuanto al alojamiento, nosotros estuvimos en la Residencia Studierendenwerk Düsseldorf, en Briener Straße. Hay que decir que la residencia no está equipada, sólo hay muebles y en la cocina no hay nada. También existe la posibilidad de alquilar un piso y hay otra residencia en Rindern. Por nuestra parte, la residencia nos parece muy buena opción porque nos ha servido para hacer nuevos amigos.

Junto con el pago de la cuota universitaria, unos 300 €, nos dan el Semester Ticket. Con esto todo el transporte en la región de Renania es gratis, excepto los trenes de alta velocidad. En general, el transporte público es cómodo y la mejor opción para moverse, y suele haber muchos trenes. Sin embargo, los trenes a menudo tienen problemas, con retrasos y cancelaciones más frecuentes de lo deseado.

En cuanto a Kleve es un pueblo que no tiene muchas cosas y se aprecia poco el ambiente universitario. Es un pueblo tranquilo para vivir con la familia. Hay que decir que es un pueblo con conexiones bastante buenas, los Países Bajos están a 45 minutos en autobús, llegas a Düsseldorf en hora y media y a Colonia en 2 horas.

Además, hay que decir que hemos tenido muy poco contacto con los alemanes porque se ven muy poco en la universidad, la mayoría de los estudiantes son extranjeros, tanto de América Latina como de Asia del Sur. En lo que respecta al alemán, hemos aprendido las palabras básicas.

Por último, nos gustaría decir que aunque probablemente Kleve no sea el mejor destino, nosotros hemos tenido muy buena experiencia allí, hemos hecho un montón de amigos y hemos aprovechado para viajar.